



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 1973/1/13

Azken aldaketa: 2009/5/20

ALHAO, 77 zk. 2009/7/8

SALBATZAILEAREN HILERRIKO ZERBITZU ETA ADMINISTRAZIO ARAUDIA

I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.-

Gasteizko Udala da Salbatzailearen hilerrriaren jabea, eta hari hilerrria administratu, zaindu eta zuzentzea baino ez dagokio; Elizaren esku uzten dira aitortu zaizkion bere jurisdikzioko eskubide espiritualak, eta gobernuaren, justiziaren eta osasunaren arloko agintarien esku, haiei legez dagokien esku-hartzea.

2. artikulua.-

Hilerrria administratu, zaindu eta zuzentzeko zereginetan, Udalak egiteko hauek beteko ditu: zerbitzuak antolatzea; zonak banatzea; tarifak zehaztea; lursailak, horma-hobiak edo hilobiak lagatzea; eskubideak jasotzea, eta hilerrriaren barne erregimenari dagokion oro. Hori guztia araudi honi eta udal ordenantzei jarraituz arautuko da, bai eta osasunaren eta poliziaaren alorretan hilerriei buruz dauden xedapen orokorre jarraituz ere.

Hilerrria administratu, zaindu eta begiratzeko izendatutako funtzionarioek arau hauek bete eta betearazi beharko dituzte.

3. artikulua.-

Hilerrrien Zerbitzuko zinegotzi ordezkaria arduratuko da hura zuzendu eta ikuskatzeaz, eta Udalari egoki deritzen proposamenak egingo dizkio lanak egiteko, zerbitzuak aldatzeko eta, oro har, bere esku utzitako zerbitzuarekin lotutako guztian.

4. artikulua.-

Hilerrriak gunek hauek izango ditu:

1. Kapera, gorputegia; hezurtegia; ehorzteko lanabesen biltegia; materialen biltegia; hilkutxak, hil-jantziak eta abar errausteko labea; autopsia gela; ehorzle eta langileak aldatu, garbitu eta desinfektatzeko gela; bulegoa; larrialdietako botikina, eta komun publikoak.
2. Espazio egoki bat izango du abortu, ebakuntza kirurgiko eta ebaketen ondorio diren giza hondarrak ehorzteko.
3. Udalak egoki jotzen badu, edo eskumena duen organoak hala xedatzen badu, gorpuak errausteko labea ere izango du.

5. artikulua.-

Esparru sagaratuari zor zaion begirunea dela eta, bertara doan pertsona orok nahitaezkoa izango du al baita eta isilen egon eta behar den erabidez jokatzeko, eta guztiz debekatuta egongo da moralari, gizalegeari edo edonolako sinismenei eraso egiten dieten hitzak esatea.

Orobat debekatzen da kale eta ibilbideetatik kanpo ibiltzea eta lorategiak zapaltzea.

Ohiturari jarraituz hilerrira jende gehiago joan ohi den egunetan zorrotzu egingo dira zaintza neurriak, hain eremu sagaratuan izan beharreko gizalegearekin bat ez datorrenik gerta ez dadin.

6. artikulua.-

Ez da inola ere saltzaile eta eskalerik egoterik onartuko, ez eta janaririk edo edaririk harterik ere.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 1973/1/13

Azken aldaketa: 2009/5/20

ALHAO, 77 zk. 2009/7/8

Ibilgailuak sartzeko kapilau-administratzailearen baimena eskatu beharko da aldez aurretik.

7. artikulua.-

Hilobietan jartzen diren apaingarriak eta idazkunak zorrotz ikuskatuko dira, eta guztiz debekatuta egongo da lekuarekin bat ez datorren edo erlijio sinismenei zein ideia politikoei iseka edo eraso egiten dion oro.

8. artikulua.-

Hilobietan –edozein motatakoa delarik– hilarriak, gurutzeak, kateak eta hileta sinboloak jarri nahi badira horretarako lizentzia beharko da, udal arkitektoak aurretik txostena egin duen delarik. Emakidadunen jabetzakoak izango dira osagarriok, eta haien kontura joango da konpondu eta onik zaintzea, lekuak eskatzen duen itxura ona gordetzen dutelarik.

Bisitarien gutzia sor dezakeen objekturik ez jartzeko gomendatzen zaie emakidadunei; hilobietatik zerbait lapurtuz gero Udalak ez du inolako erantzukizunik hartuko bere gain, edozein motatakoa izanda ere. Aldi baterako lagatako hilobietan jartzen diren hilarriak eta bestelako objektu edo hileta-sinboloak Udalaren eskuetan geratuko dira lagapen epea igaro eta bertatik kendu ez badira; Udalak egokientzat jotzen duena egingo du horiekin, eta ez da erreklamatzeko inolako eskubiderik izango.

9. artikulua.-

Debekatuta dago ate nagusiaren aurreko zabaldian edozein motatako artikuluen saltokiak jartzea, atearen aurrean eta hesi-hormaren inguru osoan hogeita bost metrora.

10. artikulua.-

Hilerriko areto guztiak, bai eta ehorzketa guneak, ahalik eta garbien edukiko dira, eta galtzadak, lorategiak eta zuhaitzak ere kontu handiz zainduko dira.

11. artikulua.-

Debekatuta dago hilerriko langileek edo besteren batek zerbitzu jakin batzuen aldeko propaganda egitea, edo pertsona zein entitate jakin batek panteoiak eraikitzearen aldekoa. Halaber, debekatuta dago langileek inolako diru-kopururik kobratzea beren lanpostuari dagozkion lanak egiteagatik.

12. artikulua.-

1. Alkateak adieraziko du zein diren hilerrira ireki eta ixteko orduak urteko sasoi bakoitzean, zerbitzuko zinegotzi ordezkariak aldez aurretik txostena egin eta Bidezaintza eta Zerbitzuen Irizpen Batzordeak proposatuta.

2. Ixteko hamabost minutu geratzen denean, kanpaia joz edo bozgorailuz ohartaraziko da horretaz, eta ordutik aurrera ezingo da inor sartu hilerrira.

3. Kasu berezietan, festaburu edo ospakizunen bat dela eta, beste ordutegi bat ezar daiteke, egun jakin horretarako bakarrik.

II. KAPITULUA.- OSASUN ERREGIMENA ETA HILETA-POLIZIA

13. artikulua.-

1. Hilerrietako higiene eta poliziarekin zein ehorzketa eta hileta-zerbitzuekin lotuta eman diren edo gerora ematen diren xedapenak bete eta betearaziko dira. Udalari eta haren ordezkari den alkateari dagokie horiek betetzeko behar diren arauak ematea; Udaleko Osasun Batzarra eta alorreko ikuskatzaileak aholkularitza organoak izango dira.

2. Araudi honen helburuetarako, definizio hauek zehazten dira:

Gorpua.- Giza gorputza, benetako heriotzaren ondorengo lehen bost urteetan.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 1973/1/13

Azken aldaketa: 2009/5/20

ALHAO, 77 zk. 2009/7/8

Gorpuzkiak.- Heriotzaren ondorengo lehen bost urteen buruan giza gorputzetik geratzen dena.

EHORZKETAK

14. artikulua.-

1. Hilerrira ehorztera ekarritako gorpu oro hilobiratuko da, baldin eta eliz lurra ematetik gabetua ez badago eta legezko tramiteak bete badira; ordenantzak ezartzen dituen ehorzketa eskubideak ordaindu beharko dira.

2. Lurreko hobietan, horma-hobietan, fabrika-obrao hilobietan eta panteoi edo mausoleoetan ehortziko dira gorpuak.

3. Hileta-araudiak zehaztuko ditu horien ezaugarriak.

15. artikulua.-

Gorpua ehortzi aurretik ezinbestekoa izango da heriotzaz geroztik behatzeko behar den arauzko epea igaro izana; dagokion barrutiko epaileak emandako ehorzte aginduaren bidez egiaztatuko da hori.

Gorpua hilerrira daraman hileta-enpresak edo pertsonak lege edo arau zibiletan zein elizakoetan eskatutako agiriak —ehortzi nahi den pertsonarekin lotuak— aurkeztuko dizkio bertako administratzaileari, eta ordenantzak agindutako eskubideak eta tasak ordaindu beharko dira, bai eta hiletan gaineko ariela ere.

Hilerriko Administrazioari behar besteko denboraz ohartaraziko zaio zein zerbitzu eman behar duen.

16. artikulua.-

Udalaren kontura eramango dira behartsuen gorpuak hilerrira eta bertan ehortziko, baldin eta hala direla egiaztatu bada; hilkutxa udal zein probintzia korporazioek edo ongintza publikoko erakundeek emango dute doan, eta lurreko hobian deritzon ehorziko dira.

17. artikulua.-

1. Alkate lehendakariak zehaztuko ditu ehorzterako orduak, hilerriaz arduratzen den zinegotzi ordezkariak aurretik txostena egin eta Bidezaintza eta Zerbitzuen Irizpen Batzordeak proposatuta. Ezarritako ordutegia bukatu baino hamabost minutu lehenago hilerrira eramanez ez diren hilotzak gorputegian utziko dira biharamunera arte, eskumena duen agintariak aldeztu aurretik ehorzterako agindu ezean. Ezarritako ordutegian onartutako gorpuak ehorzterako denbora igaro eta ehorzketaren bat egiteke geratuko balitz, luzatu egingo litzateke ordutegia denak bukatu arte.

2. Aurreko paragrafoan adierazi den bezala jokatu da ehorzterako ordutegitik kanpo edo igande zein jaiegunetan gorpuak hartzeko. Horrelakoetan, hileta-enpresek behar diren langileak eramango dituzte hilotza gorputegian ehortzi zain uzteko. Gorpua goizean sartzen bada eta lurperatzeko legezko epea igaro bada, egunean bertan ehortziko da; arratsaldean sartzen bada, berriz, biharamunetan ehortziko da.

3. Gorpuzkiak jaso, berriro ehortzi eta hilobitik ateratzeko ere alkateak ezarritako ordutegiak bete beharko dira, aurreko paragrafoetan adierazitakoari jarraituz.

18. artikulua.-

1. Panteoi edo mausoleoetan horien edukiera beste gorpu ehortz daiteke; ehorzterako eskubidearen jabeek ahalmena dute gorpuak bertan nahi beste denbora uzteko, edo gorpuzkiak txikitu eta panteoiko hezurtegiak uzteko asmoz gorpuzkiak hilobitik ateratzeko, arauzko baimenak eta ordenantza fiskalen arabera kontzeptu horientatik ezartzen dituz-



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 1973/1/13

Azken aldaketa: 2009/5/20

ALHAO, 77 zk. 2009/7/8

ten eskubideak ordaindu ondoren. Panteoietan eta mausoleoetan ehorzketa baimendu aurretik arauzko xedapenak bete beharko dira.

2. Panteoi edo mausoleoan gorpu bat ehortzi bezain laster, hilkutxa dagoen apala trenka batez itxiko da, eta lauza zein junturak hartuko, hilobiaren emakidadunaren kontura; hilobi horiek ireki eta ixteko lauzak mugitzeaz, ordea, Udaleko langileak arduratuko dira, eta horretan dihardutela kalterik gertatzen bada ordaindu egingo da.

3. Betiko lagatako hilobietan ehorzketarik egin nahi bada, titularrak aldeztu aurretik berariazko baimena eman beharko du; gainera, hark lagapen titulua aurkeztuko dio hilerriko Administrazioari, dagozkion oharrak idaztearren. Hileta eskubidearen titularrak ehorzketarako ez da baimen hori beharko.

4. Gorpua horma-hobian ehortziz gero, tartean bost zentimetroko hutsartea duen horma bikoitzaz estaliko da hobia berehala, eta hormetan, zoruan eta gangan behar den erretena irekiko da; udal langileek egingo dituzte lan horiek, eta kostua ehorzketa eskubideetan sartuko da, bai eta hilarria jartzeari dagokiona ere; hilarriaren gaineko idazkunak, berriz, ez dira hor sartuko. Gorpuek eta gorpuzkiak horma-hobietan ehorzketarako edo bertatik ateratzeko erabilera-eskubidea egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da.

5. Oro har, ez da onartuko berezko deskonposizioa eragotzi edo atzeratzen duten bildurkiak jartzea gorpuei.

HILOBITIK ATERATZEA ETA BERRIRO EHORZTEA

19. artikulua.

Gorpuek edo gorpuzkiak hilobitik atera daitezke, hilerrian bertan lekuz aldatzeko eta berriro ehorzketarako edo beste lekuren batera eramateko. Bi kasuetan, arauzko baimena beharko da, hiletetako osasun poliziaren alorrean indarrean dauden gainerako arauak beteko dira une oro, langileen segurtasunerako behar diren neurriak hartuz.

20. artikulua.-

Alkateak zehaztuko du gorpuek eta gorpuzkiak hobitik ateratzeko edo lekuz aldatzeko ordutegia, hilerriara jende gutxien doan orduetan izan dadin saiatuz; Osasun Ikuskaritzak esku hartuko beharko balu, hilerriko Administrazioarekin adostuko litzateke hori egiteko unea.

21. artikulua.-

1. Lurreko hobian ehortzitako gorpuek bost urteren buruan aterako dira, eta hezurtegi komunera eramango, senitartekoei aldeztu aurretik jakinarazi gabe.

2. Horma-hobiak aldi baterako lagatzeko urteak igarotakoan, bertan dauden gorpuzkiak hezurtegi komunera eramango dira, baldin eta senitartekoei eskatzen ez badituzte beste hobi batera eramateko.

3. Hilkutxen zurak eta jasotzen diren gainerakoak labe berezian erreko dira, eta ehorzleak arduratuko dira xedapen hauek betetzeaz.

III. KAPITULUA: GORPUTEGIA

22. artikulua.-

1. Elkarren artean komunikatuta ez dauden bi gelak osatuko dute gorputegia: bata gorpuek bertan uzteko, eta bestea jendea sartzeko; duen xedea betetzeko behar diren material eta tresnez hornituta egongo da gorputegia.

2. Hilerriko langileak arduratuko dira hura zaintzeaz, bai eta garbi eta edozein unetan erabiltzeko moduan edukitzeaz.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 1973/1/13

Azken aldaketa: 2009/5/20

ALHAO, 77 zk. 2009/7/8

3. Horietatik bereiz, sarrera aparte duen beste gorputegi bat jarriko da izurriterik bada ere, edo heriotza eragin duen gaixotasuna kutsagarria bada ere; bertan osasun zerbitzuek zehazten dituzten higiene neurriak hartuko dira.

23. artikulua.-

Hileta etxeak higiene baldintzarik betetzen ez duelako edo beste edozein arrazoi dela medio hilotza gorputegira eramaten bada, areto horretan egongo da ehorzteko legezko epea igaro eta 17. artikuluari jarraituz ezarritako ordutegia hasi arte; ehorzteko ordutegitik kanpo eramandako gorpuekin berdin jokatu da. Edozein kasutan, hilotzak gorputegian dauden bitartean ez da gaubeilarik egiterik izango.

24. artikulua.-

Gorputegian epailearen aginduz sartzen diren gorpuak ezingo dira manipulatu edo erregistratu bertara eramatea agindu duen agintariak aurretik baimena eman ezean, eta behar bezala baimenduta ez dauden pertsonen debekatu egingo zaie gorputegian sartzea.

III. KAPITULUA.- HILETA ESKUBIDEAK

25. artikulua.-

Udalak lursailak, hilobiak eta horma-hobiak erabiltzeko emandako baimenak gorpuak eta gorpuzkiak ehorzteko eta ez besterako direla ulertu behar da, dela zuzenean edo behar den fabrika-lana eginez. Beraz, bai lursailari bai bertan jartzen diren eraikuntzei dagokien araudi honetan ezartzen diren baldintzak bete behar dira, bai eta hiletetako osasun poliziaren alorrean unean-unean indarrean dauden arauak ere.

LURSAILEN GAINEKO ALDI BATERAKO HILETA ESKUBIDEA

26. artikulua.-

1. Lurperatzeko egien diren lur-lagapenek beti sei urte iraungo dute gehienez. Horiei lurreko hobi deritze, ez baitute inolako fabrika-lanik behar: nahikoa da hobi edo zanga bat irekitzea.

2. Emakidaren epean gorpu bakarra egon ahalko da hobian; epea igarotakoan gorpuzkiak atera eta hezurtegi komunera aldatuko dira, senitartekoei alde aurretik jakinarazi gabe.

3. Hilobi horietarako lurra doan lagatzen da adierazitako eperako, gorpua ehorzten denean kontaktatzen hasita.

HORMA-HOBIEN HILETA ESKUBIDEA

27. artikulua.-

1. Gorpuak ehorzteko horma-hobien erabilera betiko laga daiteke, edo aldi baterako, gehienez ere sei urteko epean. Gorpuzkiak berriro ehorzteko erabiltzekoak diren hobi-hezurtegiak betiko utziko dira edozein kasutan.

2. Hobia sei urterako lagaz gero, epe hori ezingo da luzatu, eta bukatutakoan, gorpuzkiak bertatik atera eta hezurtegi komunera eramango dira, baldin eta lagapen epea bukatzen den eguna baino hiru hilabete lehenago beste hilobi batera eramateko eskatzen ez bada, zerbitzuak emateagatik ordaindu beharreko prezioei buruzko ordenantzetan ezarritako eskubideak ordainduta.

3. Aldi baterako hileta eskubideen epeak ekainaren 30ean edo abenduaren 31n bukatuko dira, baimena ematen den egunetik kontaturik gehiagora biribilduta.

4. Betiko lagatako horma-hobi arruntetan gorpu bakarra baino ezingo da ehortzi. Hala ere, legezko epea igaro ondoren, onuradunek gorpuzkiak txikitu eta beste hilobi batera eramane ditzakete, edo beren kontura egindako hauts-kutxa batean sartu eta horma-



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 1973/1/13

Azken aldaketa: 2009/5/20

ALHAO, 77 zk. 2009/7/8

hobiaren hondoan jarri, ordenantzak zehazten dituen eskubideak ordainduta. Nahi beste ehorzketa egin ahalko da horrela, horma-hobiaren edukierak ahalbidetzen duen heinean.

5. Horma-hobiak erabiltzeko baimena alkatearen dekretuz emango da, interesdunak hala eskatuta eta hilerriaz arduratzen den zinegotzi ordezkariak aldeztu aurretik txostena eginda. Horma-hobiak okupatzeko baimenak emateko hurrenez hurreneko ordenari jarraituko zaio.

6. Salbuespenez, familiak horma-hobia erabiltzeko baimena lortzeko astirik izan ez duenean, kapilau-administratzaileak bat okupatzen uzteko eskumena izango du, dagokion zerga ordenantzan zehaztutako tarifak ordainduta; edonola ere, horma-hobiak lagatzeko ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

7. Horma-hobiak multzoen arabera sailkatu eta lerroen arabera banatuko dira; lerro bakoitzaren barruan, horma-hobiek zenbaki bana izango dute. Udalak erabilera-baimena egiaztatzeko ematen dituen agirietan alderdi horiek ongi zehaztuko dira, bai eta erabiltzeko epea ere.

HILOBI ETA ORUBEEN GAINEKO BETIKO HILETA ESKUBIDEAK

28. artikulua.-

Udalak eraikitako obra-fabrikako hilobiak —araudi honen ondorioetarako hilobi eraikiak deituko zaie— betiko lagako dira, alkate dekretuaren bidez eta interesdunak hala eskatuta.

29. artikulua.-

1. Panteoiak edo mausoleoak eraikitzeko lurrak betiko utziko dira, Udal Batzorde Iraunkorraren erabakiz eta interesdunak hala eskatuta.

2. Erabilera-eskubidea emateko erabakian zehaztuko da zenbateko sakoneran hondea daiteke, arauzko baldintzak betetzen badira beti ere.

3. Eraikuntza horiek sendoak izan behar dutenez, eta hilerriaren apaingarri ere badirenez, kanpoalde eraikian zein lurpean ehorztea izango da.

4. Eraikuntzarako behar diren lan guztiak eskatzailearen kontura joango dira, euste-hormak, gangak, altxaketak eta apaingarriak barne.

5. Guztiz debekatuta dago panteoi edo mausoleoetako hobiak alokatu edo saltzea.

6. Panteoiak zaharberritu edo eraberritzeko lanak direla eta barruan dauden gorpuzkiak bertatik atera behar badira, horma-hobietan utzi ahalko dira, Udalari ordainarazpen ordenantzan ezarritako kanona ordainduta; nahi beste gorpuzki utzi ahalko da, hilerriko administratzaileak adierazten dituen hobietan.

BETIKO HILOBIENTZAKO ARAU OROKORRAK

30. artikulua.-

Betiko horma-hobi, hilobi eraiki, panteoi edo mausoleoetan gorpuk ehortzi edo bertatik ateratzeko, erabilera-eskubidearen titularrak sinatutako baimena beharko da; ehortzi beharreko gorpua hilobiaren titularrarena denean, ordea, ez da baimen horren beharrik izango.

31. artikulua.-

Behin horma-hobiak, hilobi eraikiak edo panteoi zein mausoleoetarako lurrak erabiltzeko baimena eman denean, interesdunari ebazpena jakinaraziko zaio, eta jakinarazten den egunetik hasita hamabost egun balioudun igaro ondoren horri dagokion zenbatekoa ordaindu ez badu, baimena baliogabetzat joko da. Indarreko tarifetan zehaztutako zenbatekoa aldi bakarrean ordainduko da, Udal Diruzaintzan.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 1973/1/13

Azken aldaketa: 2009/5/20

ALHAO, 77 zk. 2009/7/8

32. artikulua.-

1. Betiko lagapenak, dela panteoiak eta mausoleoak egiteko lurrena, dela horma-hobiena edo hilobi eraikiena, hilerria erabiltzen den denbora osorako direla ulertu behar da. Edozer dela eta hilerria itxiko balitz, lagapen-hartzaileek ez lukete kalte-ordainak jasotzeko inolako eskubiderik izango, ezta eraikuntzengatik ere.

2. Hilerria eraberritzeko lanak edo ixtea ez den beste arrazoiren bat tarteko Udalak betiko hilobi horietakoren bat kendu beharko balu, lagapen-hartzaileari beste lursail bat utziko lioke beste leku batean, eta kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango luke libre utzi beharreko eraikuntzaren truke.

33. artikulua.-

1. Panteoi eta mausoleoen, horma-hobien zein hilobi eraikien erabilera-eskubideen titularrak higiene baldintza egokietan eduki behar dituzte horiek, txukun eta onik zainduta.

2. Arretarik ematen ez zaielako hondatu edo abandonatu itxura badute, eta horrek arriskua edo irudi txarra eragiten badu, Udalak eraitsi eta hilobian dauden osagarri eta objektu guztiak kenduko ditu, eta gorpuzkiak hezurtegi komunera eramango, eta ezingo zaio horrekin lotuta inolako kalte-ordainik eskatu. Hilerriaz arduratzen den zinegotzi ordezkariak abiaraziko du hondamen egoera adierazteko administrazio dosierra. Lagapen-hartzaileari hitzordua jarriko zaio, haren helbidea ezaguna bada hara jakinaraziz edo hala ez bada Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean dagokion ediktua argitaratuz. Hogeita hamar eguneko epea emango da titularra, senideak edo zordunak ager daitezen eta behar den konponketa egiteko konpromisoa sina dezaten, eta nahikoa denbora emango da horretarako; epea igaro ondoren konpromisoa bete ez bada, hilobia erabiltzeko eskubidea iraungitza joko da.

3. Hilobian egin den azken ehorzketatik hogeita hamar urte igaro izana nahikoa izango da hilobia abandonatutzat jotzeko, eta zerga ordenantzan hilerrian emandako zerbitzuengatik eta egon daitezkeen aprobetxamendu bereziengatik ezarritako eskubide eta tasak ordaindu gabe egotea, betearazte-bidez kobratzeko aldez aurretik zorra dagoela ziurtatu eta ordaindu ez denean. Abandonatutzat jotzeko administrazio dosierra bideratu beharko da, aurreko paragrafoan ezarritako baldintza berekin.

4. Hilobia hondamen edo abandonu egoeran dagoela deklaratzeko hura erabiltzeko eskubidea iraungitzea ekarriko du, eta ez da inolako ordainik edo kalte-ordainik jasoko ez eskubidearengatik ez eraikuntzagatik. Beraz, Udalak nahierara erabili ahalko du hilobi hori, bertan dauden gorpuzkiak lekuz aldatu ondoren.

34. artikulua.-

Hilobia erabiltzeko eskubidea, mota eta xedea edozein delarik, pertsona bakarraren ize-nean emango da beti.

IV. KAPITULUA: ESKUALDAKETAK

35. artikulua.-

1. Fundazio elizkoa izanik, barruan gorpuak edo gorpuzkiak dituzten horma-hobi, hilobi eraiki, panteoi edo mausoleoen betiko lagapenen titularitatea ezingo da inola ere bizidunen artean eskualdatu, bakarrik oinordetzan edo jaraunspen bidez eskualdatu ahalko dira.

2. Lagapen-hartzailea hiltzen denean, lagapenaren titularitatea testamentuko xedapenean adierazitako jaraunse edo ondorengoari emango zaio; testamentu-egileak bi pertsona edo gehiago izendatu baditu hilobia erabiltzeko eskubidearen jaraunse gisa, adinez zaharrena denari eskualdatuko zaio. Jaraunse edo legatu-hartzailerik izendatu ez bada, nahi-taetzko jaraunselek erabakiko dute haietako zeini eskualdatuko zaion eskubidea; kasu horretan, titularitatea aldatzeko udal administrazioan aurkeztu behar den eskubidearekin



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 1973/1/13

Azken aldaketa: 2009/5/20

ALHAO, 77 zk. 2009/7/8

batera nahitaezko jaraunsle guztien adostasuna jasotzen duen agiria aurkeztu beharko da. Hilobia erabiltzeko eskubidearen titularitatea eskualdatu behar zaion pertsonari buruz adostasunik ez bada, adinez zaharrena den nahitaezko jaraunslea izango da titularraren ondorengoa, eta nahitaezko jaraunslerik ez bada, kode zibilaren 947. artikulutik 954. artikulura bitartean zehaztutako senitartekoen arteko zaharrenari, bertan adierazitako ordenari jarraituz.

3. Artikulu honetako lehen paragrafoan ezarritakoak salbuespen bakarra izango du: hilibiak irabazteko xedez edo kostu bidez eskualdatzea baimentzen da baldin eta lagapenaren titularrak zuzenean egiten badu, lagapena osorik hartuta eta hilobian bat ere ehorzketarik egin aurretik, edo barruan zeuden gorpuzki guztiak beste hilobi batera eraman ondoren.

4. Edozein eskualdaketatan, dagokion baimena eskatuko zaio Udalari. Lagapen eta eskualdaketen alorrean araudi honen espiritua –hots, hilibiak salerosketatik kanpo uzteko printzipiori eustea— ez dela saihestu nahi egiaztatzen denean baino ez da baimenik emango; hori dela eta, Udalak ondasuna lehentasunez erosteko edo atzera eskuratzeko eskubidea izango du, ondorengotza edo jaraunspen bidezko eskualdaketetan izan ezik.

5. Baimendutako eskualdaketek hilerriko zerbitzuengatik zerga ordenantzan adieraziko eskubideak sortuko dituzte.

V. KAPITULUA: ERAIKUNTZAK

36. artikulua.-

Hilerrian dauden eraikuntza guztiak, hilobi mota ezberdinak barne, Udalak eraikiak dira, eta udal jabetzakoak, beraz, betiko hileta erabilera baino ez da lagatzen.

37. artikulua.-

Betiko hileta eskubidearen jabeek ezin dute lanik egin esleitutako panteoi edo horma-hobietan, hilobia ematerakoan zegoen baldintza beretan mantentzeko konponketa edo garbiketa lanak izan ezik.

38. artikulua.-Aurrekoa gorabehera, zenbait gozamedunek panteoien itxura hobetzeko erakutsi duten nahia aintzat harturik eta, aldi berean, hilerriaren eraikuntzan kontuan izan ziren berdintasun eta uniformetasun printzipioei eutsiz, honako obra hauek egitea baimendu daiteke:

38.1.- Panteoi baxuez osatutako 122, 132, 152, 222 eta 252 lur sailetan, horiek erabat gaineztatzea baimentzen da, udalak finkatutako ereduetakoren bat baliatuz –interesdunek eskuragarri dituzte horien planoak.

38.2.- Panteoi garaiez osatutako gainerako lur sailetan, horiek erabat gaineztatzea baimentzen da, baina zehaztapen hauek aintzat harturik:

a) Panteoia ixteko estalkien ordez neurri bereko granitozko beste batzuk jarri ahal izango dira, egoki manipulatu ahal izateko beharreko diren hegalak utziz, beti ere.

b) Estalki horiei eusten dieten panteoiaren aho edo lepoaren aldeetako lau hormak eta haren azalera 2 cm-ko lodierako xaflez estali ahal izango dira.

c) Panteoiaren azalera horizontalak, a) atalean adierazitako estalkiak salbu, akabera mutxardatu gisakoa izan beharko du, nolahi ere fina.

d) Hobiaren gainean elementu apaingarriak jartzea baimendu ahal izango da, hala nola murkoak, loreontziak, landare-ontziak, eskulturak eta abar, baina ezinbesteko baldintza izango da horretarako 20 kg-tik beherako pisua izatea, eta eraikuntzari kalterik egin gabe eta baliabide berezirik erabili gabe erraz kentzeko modukoak. Gainera, titularra bera izango da horiek kentzearen arduradun, hildakoak ehortzi edo hilobitik atera aurretik.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 1973/1/13

Azken aldaketa: 2009/5/20

ALHAO, 77 zk. 2009/7/8

e) Panteoi bat gaineztatzen denean, aldamenetakoak alde aurretik gaineztatuta badaude, haiekin bat egin arte jarri beharko dira xaflak, koska eta irtengunerik utzi gabe.

f) Behar den lizentzia eskuratzeko aurkezten den proiektuan zatiz zati zehaztu beharko da jarri nahi den xafladura.

39. artikulua.-

Estaltzeko granito gris iluna erabiliko da, kalitate onekoa.

40. artikulua.-

Debekatuta dago panteoian edo inguruan beste edozein aldaketa egitea; ezingo da ez eskudelik ez mugatzeko hormatxorik jarri, edo inguruko berdeguneak zolatu edo aldatu. Esandakoa betetzen ez bada udal zerbitzuek zuzenduko dute, jartzen den bermearen kontura.

41. artikulua.-

Lanak egiteko, lanerako ibilgailuak sartzeko eta abarretarako hilerriko langileen aginduei jarraitu beharko zaie une oro.

Berme bat jarri beharko da baimentzen diren lanak zuzen gauzatzen direla bermatzeko eta udal jabetzan kalterik gertatzen bada horiek konpontzeko; lizentzian zehaztuko da hori.

42. artikulua.-

Gozamendunek hobetzeko lanik egiten badute, berek mantendu, zaindu eta konpondu beharko dituzte; kalterik gertatuz gero, edo aldatutako panteoiak manipulatu edo irekitzen badituzte, Udalak ez du erantzukizunik hartuko bere gain.

43. artikulua.-

Lan lizentzia lortzeko interesdunak agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- *Obra txikietarako lizentzia eskatzeko orria.
- * Hileta erabilera lagatzeko eskrituraren kopia.
- * Egin nahi diren lanen krokis xehea.
- * Egin nahi diren lanen aurrekontu xehea.

44. artikulua.-

Ezingo zaio inolako lani ekin udalaren baimenik izan eta dagozkion eskubideak zein kasuan-kasuan eskatutako bermea ordaindu ezean. Lizentzia eman ondoren gehienez 3 hilabeteko epean burutu beharko dira lanak.

Eskatutako lizentzia dela eta zinegotzi ordezkariak ematen duen xedapenaren kontra errekurtsua aurkeztu ahalko da, alkate lehendakariari zuzendua.

Egiten den lana Udalak baimendutakoarekin bat ez badator, eraitsi egingo da, eta sortzen diren gastu guztiak hileta-erabileraren jabeak ordaindu beharko ditu; gainera, zigorra ere ezarri ahalko zaio.

VI. KAPITULUA.- HILERRIKO LANGILEAK

45. artikulua.-

1. Hilerria gobernatu, mantendu eta zaintzeko eta bertako zerbitzuak emateko langile hauek egongo dira: administrazio kudeaketarako arloko buru bat, arduradun-langileburu bat, bost ehorzle eta bi zaindari-pioi.

Langile horietaz gain, urteko sasoiaren arabera hilerrian dauden premiak betetzeko behar diren aldi baterako langileak hartuko dira.

2. Udalari dagokio kapilau-administraria izendatzea, elizako agintaritzaren onespenarekin.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 1973/1/13

Azken aldaketa: 2009/5/20

ALHAO, 77 zk. 2009/7/8

3. Langileei dagozkien zereginak eta zerbitzuak legez izendatutako plantillako funtzionarioek beteko dituzte, edo baimendutako moduetako batean kontratatutako langileek.

46. artikulua.-

Langileek ezingo dute lanetik joan baimenik gabe; alkateak, zinegotzi ordezkariak edo kapilau administrariak emango dute baimen hori, dagokionaren arabera.

47. artikulua.-

Langileek Udalak erabakitako bereizgarriak eta jantziak erabiliko dituzte, baina lanean ari direnean baino ez; debekatuta dago zerbitzutik kanpo horiek erabiltzea.

Une oro ahaleginduko dira hildakoen senitartekoei eta hilerriko bisitariei enbarazurik ez sortzen, ehorzteak, ateratzeak, lekualdatzeak eta abar ahalik eta begirune handienaz eginez. Ahal duten neurrian, egiten zaizkien kexa eta erreklamazio guztiei erantzungo diete, eta horiek konponduko, eta guztiekin behar den gizalagez jokatu dute.

48. artikulua.-

Funtzionario guztiei araudi honen ale bat emango zaie, eta ezingo dute argudiatu bertan jasotako aginduen berri ez zutela.

KAPILAU-ADMINISTRATZAILEA

49. artikulua.-

1. Bere ministerioari dagozkion zereginenez gain, hilerriko Administrazio Zerbitzuen burua den aldetik zeregin hauek dagozkio:

2. Araudian, indarreko legeetan eta agintariak emandako aginduetan gorpuak ehortzi, atera, lekuz aldatu eta abarrekin loturik ezarritakoa betetzea eta betearaztea.

3. Hilerriko gainerako enplegatu eta langileak haren menpe daude; bakoitzak esleitutako zereginak ahalik eta ondoen egin ditzan zerbitzuarekin lotuta ematen dituen zein jarraibideak bete beharko dituzte.

4. Langileak eta lanaren banaketa zein garbiketa zainduko ditu, eta faltarik ikusiz gero kargu hartu eta zuzendu egingo ditu; horietakoren bat larria balitz, alkateari edo zinegotzi ordezkariari jakinaraziko lioke.

5. Hilerriko leku guztietako giltza-sorta izango du.

6. Hilerriko altzariak, tresnak eta lanabesak inbentariatu eta zainduko ditu.

7. Gorpuak eta gorpuzkiak jasotzen direnean aurrean egongo da, eta behar den dokumentazioa eskatu eta aztertuko du, alorrean indarrean dauden xedapenak eta araudi honetan zein zerga ordenantzetan jasotako arauak betetzen dituen egiaztatzeko.

8. Ehortzi, atera edo berriro ehorzteko lanak orri bikoitzaren bidez aginduko ditu; horietako bat arduradun-langileburuari emango dio, hark agindua betetakoan itzul diezaion, nahasmendurik izanez gero erantzukizuna norena den zehazteko. Udaleko ekonomia eta diru-bilketa zerbitzuei lan horiekin lotutako agiriak bidaliko dizkie, behar diren ordainarazpenak egin ditzaten, eta Errolda Zerbitzuari, berriz, ehorzketen hileko zerrenda bidaliko dio.

50. artikulua.-

1. Kapilau-administratzailearen zeregina izango da, halaber, liburu eta fitxategi hauek egunean eramatea:

Ehorzte eta ateratzeen erregistro liburuak.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 1973/1/13

Azken aldaketa: 2009/5/20

ALHAO, 77 zk. 2009/7/8

Lagapenei buruzko liburuak, horma-hobiak, hilobi eraikiak, panteoiak eta mausoleoak berezita; lagapenen zerrenda jasoko da horietan, emateko data, emakidadunen izen-deiturak eta hilobiaren kokapena zehaztuta.

2. Antolaketa administratiboari jarraituko dio informazioa jasotzean, behar diren datuak zehatz bilatzeko eta estatistikak egitea ahalbidetzeko moduan.
3. Liburuez gain, adierazitako kontzeptu bakoitzari buruzko fitxategiak osatuko dira, aurreko paragrafoan aipatu den antolaketa lortzearen.
4. Liburuekin zein emandako obra lizentziekin lotutako dokumentazioa ordenaturik artxibatuko da.
5. Emandako zerbitzuei buruzko memoria bat aurkeztuko dio Udalari urtero.

ARDURADUN-LANGILEBURUA

51. artikulua.-

1. Kapilau-administrariari zor dion mendetasuna errespetatuz, haren esanetara egongo dira ehorzleak, pioiak eta langileak. Zereginak langileen artean banatuko ditu, eta hutsik antzemanaz gero nagusiari horren berri emango dio, hark egoki iritzitako neurriak har ditzan.
2. Baimena hartu duelako edo gaixo dagoelako kapilau-administraria ez dagoenean, hura ordeztuko du, eta haren administrazio zereginak eta erantzukizuna bere gain hartuko ditu.
3. Ehorzteko lanabesak eta hilerrian dauden gainerako tresnak eta objektuak zaintzeaz arduratuko da.
4. Hilerriko leku guztietako giltzak izango ditu, administratzaileak bezala, eta bere esku-menekoa izango da hilerria ireki eta ixtea.
5. Egunero, lanaldia hasterakoan, administraritzatik igaroko da eguneko aginduak jasotzera, haiek bete eta betearazteko.
6. Lurreko hobi nahiko irekita edukitzeaz arduratuko da, administratzailearen aginduen arabera.
7. Eraikuntza eta lanekin lotuta araudi honetan xedatutakoa betearaziko du.
8. Ehorzleen lan segurtasuna eta higiena zainduko du.
9. Udal arkitektoaren txostenean emandako oinarriek jarraituz, jarri nahi diren idazkun, epitafio eta ikurrak baimenduko ditu, eta guztiz debekatuko lekuarekin bat ez datorren oro edo erlijio sinismenen zein ideia politikoen kontrako isekak edo erasoak. Zalantzarik izanez gero, administratzaileari galdetuko dio horrelakorik jartzeko baimena eman aurretik, eta hark hilerriaz arduratzen den zinegotzi ordezkariari; zinegotziak zehaztuko du jarraitu beharreko irizpidea, eta interesdunek zorrotz beteko dute.

EHORZLEAK

52. artikulua.-

Gorpuak eta gorpuzkiak lagundu, ehortzi, atera eta lekuz aldatzeko lanak egingo dituzte, bai eta panteoiak, mausoleoak, horma-hobiak eta hilobiak ireki eta ixtekoa lanak ere, arduradunaren edo haren ordezkoren aginduei jarraituz. Areto guztiak ongi zaindu eta garbitu beharko dituzte, eta lapurretari gerta ez dadin begiratu; lorategiak eta zuhaitzak ureztatu eta zaintzeaz arduratuko dira, bisitarien gizalegez jokatzeko eskatuko diete eta, oro har, duten karguarekin lotutako lan eta zerbitzu oro beteko dute.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 1973/1/13

Azken aldaketa: 2009/5/20

ALHAO, 77 zk. 2009/7/8

53. artikulua.-

Ezingo dute gorpurik ehortzi, atera edo lekuz aldatu beren kabuz, beti zuzeneko arduradunaren aginduei jarraitu beharko baitiete, eta edozer gertatuz gero hari jakinarazi beharko diote berehala.

54. artikulua.-

Gorpu bat hilobitik atera eta gorpuzkiak txikitu edo lekuz aldatzen direnean, egun berean, jantziak, abituak, hil-jantziak edo hilkutxak erreko dituzte, horretarako berariaz zehaztutako lekuan.

Gorpuak edo gorpuzkiak maneatzeko objekturen bat aurkituz gero, arduradunari emango diote, hilerriko administraritzan gorde dezaten. Langile batek aurkitutako objekturen bat beretzat gordetzen badu, haren kontrako dosierra abiaraziko da, agintari eskudunei dago-kion salaketa aurkeztea baztertu gabe.

Gorpuak edo gorpuzkiak profanatzea edo errespeturik gabe maneatzeko ere dosierra abiaraztea ekarriko dute.

55. artikulua.-

Beharrezkoa den lanetan aritzeko, ehorzleek zein gainerako langileek gomazko eskularruak eta emanazioetatik babesteko maskarak izango dituzte.

56. artikulua.-

Arduradun-langileburuak zein kapilau-administratzaileak egoki baderitzote, zaindari-pioiei lagunduko diete haien zereginetan.

57. artikulua.-

Baimena hartu duelako edo gaixo dagoelako arduraduna ez dagoenean, kapilau-administrariak izendatzen duen ehorzleak ordeztuko du hura.

ZAINDARI-PIOIAK

58. artikulua.-

Zeregina hauek beteko dituzte: atezaintza lanak; kaleak eta ibiltokiak garbitu eta zain-tzea; gorpua ehortzi bezain laster hilobiak ixteko harlauzen junturak finkatzea eta horma-hobiak ixtea, eta arduradunak zein administratzaileak agindutako beste edozein lan, ehorzleen laguntzaile gisa.

59. artikulua.-

Kapilau-administratzaileak antolatuko du lana, hilerriaz arduratzen den zinegotzi ordezkariaren baimenarekin, langile guztiek asteko atsedena eta urteko oporrak hurrenkeran har ditzaten.

VII. KAPITULUA: HILETA ENPRESAK

60. artikulua.-

Legez baimendutako enpresei nortasuna aitortuko die Udalak udal bulegoetan zenduaren senitartekoek behar dituzten agiriak tramitatzeko, horien izenean jarrita. Ahalorde edo baimen bereziaz dosierretan agertzeko nortasuna ere izango dute.

VIII. KAPITULUA: HILERRI ZIBILA

61. artikulua.-

Eliz lurra ematen ez zaien pertsonen gorpuak eta gorpuzkiak hilerri katolikoaz bereizitako esparruan ehortziko dira; aplikatzekoak diren lege xedapenak eta araudi honetan jasotakoak beteko dira horiei dagokienez, bai eta hilerriko zerbitzuengatik zerga ordenantzan adierazitakoa ere.

IX. KAPITULUA: ARAU-HAUSTEAK



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 1973/1/13

Azken aldaketa: 2009/5/20

ALHAO, 77 zk. 2009/7/8

62. artikulua.-

Alkateak isunez zigortuko ditu araudi honetan jasotakoaren kontrako arau-haustek, legean aurreikusitako mugen barruan, kode penalak ezarriko zigorrak eta erantzukizunak gorabehera.

XEDAPEN OROKORRAK

LEHENA.- Udalak araudi hau aldatzeko ahalmena izango du, eta zerbitzuaren erabiltzaileek edo edozein motatako hilobi baten lagapenaren titularrek, edo zerbitzuko langileek, ez dute inolako erreklamaziorik egiteko edo kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

BIGARRENA.- Udal Batzorde Iraunkorrari baimena ematen zaio araudi hau aplikatu eta ulertzeko orduan sortzen den edozein gorabehera ebazteko.

HIRUGARRENA.- Partikularrek aginduta panteoiak eraiki edo aldatzeko lanak edo beste-lakoak egiten dituzten langileek istripu edo kalterik izanez gero, Udalak ez du erantzukizunik izango, horiek egiteko baimena eman badu ere, ez eta bisitariei edo hileta erabileraren titularrei edozer dela kausa gertatzen zaizkien gorabeheren erantzukizuna ere.